

zein onesten dituen jakin nairik, gero Aritmetikan itz oiek erabiltzeko. Euskaltzaindiak lan ontan batzaraldi -asti guzia jardun du.

Otoitzez amaitu da batzaraldia.

---

### **Donostian, Eusko-Ikaskuntzaren gela nagusian, 1931-ko Otsailaren 27-an.**

Batzaraldira euskaltzain abek datoz : Azkue maipuru, Urkijo, Olabide, Intzagarai, Altube, Intza, Lakonbe, Etxegarai eta urgazletatik Ormaetxea jauna. Otoitzez asi da.

I.—Intzagarai jaunari eman zaizkio Eusko-Ikaskuntzako *Ikastol-Batzorderako* Aritmetikan erabili litezken itzen zerenda. Ez ditu ordea Euskaltzaindiak bere-berekotzat artzen: ongi daudela besterik ez du esaten.

II.—Lakonbe jaunak, orain dirala ogei urte bildutako Aldude-ko kontu batzuek irakurri dizkigu.

III.—Etxegarai jaunak bere lan bat dakar: *Ara* zer dan *toponimian* erakutsirik: batzuetan *planicie*, bestetan *agua corriente*. Eredutzat izen asko aitatu ditu.

IV.—Azkue jaunak *modismo* batzuek irakurri dizkigu.

V. — Kirikiñoren saria epaitzeko, Euskaltzaindi-ordeko epaile bat bear dala-ta, Intzagarai aukeratu degu.

Ta beste gairik izan ez da otoitzez amaitu da batzaraldia.

---

### **Iruña-n, Aldundi-Jauregian, 1931-ko Joñailaren 29-an.**

Euskaltzain jaun abek bildu dira : Azkue maipuru, Kanpion, Olabide, Intzagarai, Lakonbe, Etxegarai,

Elissalde, Urkijo eta urgazletatik Ormaetxea. Otoitzez asi da.

I.—Etxegarai jaunak esan digu, Madriden aixtian gertatu dana. Euskaleñifik joanak ziran ainbeste jaun, euskal-bazkun askoren izenean (gure izenean Etxegarai bera) Ministro jaunari eskatzera : emengo Ikastoletan, bertako irakasleak euskeraz erakutsi ditzatela irakasgai guziak. Esan digu zein afera on egin zien Ministroak.

II.—Urkijo jaunak, Laffitte apaiz gaztearen liburu-txo baten beñi eman digu. Liburu onen izena : *Loretegia*. Antziñatik asirik onuntz arteko euskal-idazleen lantxo batzuek agertzen ditu. Euskaltzaindiak 25 liburu-txo erosiko dizkio.

III.—Azkue jaunak lan eder bat irakuñi digu: *Eñonkariako euskalkiaren berezipen batzuek*. Gure *Euskeran* argitaratuko da.

IV. Apaiz gazte baten idazki bat irakuñi degu ta ez degu aitzakotzat artu.

Otoitez amaitu da batzañaldia.

---

### **Iruña-n, Aldundi-Jauregian, 1931-ko Jofaĩlaren 30-an.**

Aureko batzañaldian bildu ziran jaun berak eta Anjel Irigarai osagilea eta urgazlea datoz. Otoitz egin da.

I.—Iztegirako itz batzuen zeñenda aztertu degu: oni dagozkion beste izpidetan igaro da batzañaldiko asti geiena.

II.—Ondañoa'ko *Euskaltzale-Bazkunak*, maitetsu zitzaigun gure Agiñe Domingo jaunaren aomenez jai-aldi bat egin nai luke. Ortarako Euskaltzaindiaren sorospidea nai luke; guk iñolaz ezin uka. Euskal-